

ZU DRAGOIA ETA NI PRINTZESA



Baziren behin 2017. urtean Bergara izeneko herri batean Lili eta Ekai izeneko anai-arreba batzuk.

Lili indartsua eta ausarta zen, begi berdeak eta ile motza zuen eta Ekai beldurtia eta ahula zen, ile luze eta begi marroiak zituen.



Egun baten eskolan zeudela irakasleak ihauterietan zertaz mozorrotuko ziren galdetu zien:

- Zuek zer mozorro jantziko duzue?

Biak pentsakor gelditu ziren.

- Ni dragoi mozorrotuko naiz. - esan zuek Lilik.
- Ba ni... ni printzesa! - esan zuen Ekaiek.



Gau hartan bi aitei kontatu zioten erabakitakoa, aita bati ondo iruditu zitzaion:

- Oso ondo iruditzen zait, oso ideia polita izan duzue - esan zuen Mikelek.

Baina Aitorrek:

- Zuen mozorroa mutilentzat da eta printzesa nesken kontua da. Lili, zu ezin zara dragoi izan, neska zara eta neskentzako mozorro bat aukeratu behar duzu. Ekai, eta zu printzesa ezta ere, hori nesken kontua da.

Mikel oso pertsona baikorra zen baina Aitor guztiz kontrakoa, ez bazen berak nahi zuena egiten haserretu egiten zen.



Lotara joan zirenean ezin izan zuten loak hartu, gertatutakoari bueltak eta bueltak ematen ari ziren.

Hurrengo goizean plan bat pentsatu zuten: Lili Ekai izango zen eta Ekai Lili, horrela nahi zuten bezala mozerrotu ahalko ziren.

Eskolan zeuden bitartean ondo pasatzen saiatu ziren.



Hurrengo egunean ihauteriak ziren eta beraien plana martxan jarri zuten, Lili Ekairen arropak jantzi zituen gainetik dragoi mozorrotu zen eta Ekaik Liliren arropak jantzi zituen, ondoren printzesa mozorroa gainetik jartzeko.



Azkenean bi umeak aspertu egin ziren bi mozorro eramateaz, orduan bestearen mozorroa kentzea erabaki zuten. Aitor konturatu egin zen eta zerbait esatera joan zen:

- Lili! Ekai! Zertan zabiltzate!, ez al dizuet argi utzi ezin dituzuela mozorro horiek jantzi?

- Zergaitik ez? Gure mozorroa da eta guk erabakiko dugu nola mozorrotu! - erantzun zion Lilik.
- Ez duzu eskubiderik zer jantzi esateko! - erantzun zion haserre Ekaik.

Mikelek eztabaidatzen ikusi zituenean gerturatu egin zen eta haurren alde jarri zen.

- Ez al zara konturatzen umeek arrazoia dutela? Ez duzu eskubiderik horrela jartzeko.

Aitor etxera joan zen haserre bizian, egun batzuk pasa eta zerbait pentsatu zuen: bakoitza nahi zuenaz mozorrotu ahal zen.



**Hala bazan edo ez bazan
sar dadila kalabazan
eta atera dadila
Bergarako plazan**